

noaua

Larunbat honetan,
Euskal Jaia Zubietan

Hotzikara musika taldea,
"laster arte"

San Praixku jaiak,
azken txanpan



**Zuzendaritza talde berriarekin
hasi du denboraldia
Usurbil FT taldeak**




**antenas
Telemar**

1969. urtetik gipuzkoarrei zerbitzua ematen.
Telekomunikabideetan goi mailako teknikariak.



elkano kalea 13 HERNANI

Tlfnoa. 943 55 33 99
info@antenastelemar.com



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

ASEGURURIK BADUZUE?

**DEITU GURE BULEGORA ZUZENEAN (24H)
IZAPIDEAK AZKARTUKO DITUGU
BEILATOKI GUZTIEKIN LAN EGITEN DUGU,
ERREKALDE, POLLOE...eta
ERRAUSKETA-LABEEKIN**

ASEGURURIK EZ DUZUE?

**AURREKONTUAK KONPROMISORIK GABE
FAMILI BAKOITZERA EGOKITUTAKO ZERBITZUAK
BEILATOKI GUZTIEKIN LAN EGITEN DUGU,
ERREKALDE, POLLOE...eta ERRAUSKETA-LABEEKIN
USURBILGO BEILATOKIA DOAN
FINANTZAKETA INTERESIK GABE
OINARRIZKO ZERBITZUAK OSO MERKEAK**

Tel: 943.36.21.63

**BALTSAMAZIO, KONTSERBAZIO ETA BERREIRAKETAN
ADITUAK, PARTIKULARRENTZAT ETA EHORZKETA
ENPRESENTZAT LAN EGITEN DUGU EUSKAL HERRIAN**

info@funerariagonzalez.es munalurra 8, Usurbil

Sarrerren salmenta



bastero
KULTURGUNEA

"EMAZTEGAIAREN SEMEA"
Ados Teatroa
URRIAK 18, ostirala, 21:30h

"PAPO PUPA"
Hipo eta Tomax
URRIAK 20, igandea, 17:00h

KALAKAN
URRIAK 25, ostirala, 21:30h

"IO SONO LI"
Filme onenari Lux Saria 2012
URRIAK 30, asteazkena, 19:30h

Andoain Ekitaldiak

Informazio gehiago: 943.303.540 www.andoain.org

Albiste iruditan

Ahaleginak, mugarik ez

Meritua badute, izugarria gainera. 46 orduetan 168 kilometroko mendi ibilbidea osatzera joan ziren bi usurbildar, Moises Andres eta Iñaki Bengoetxea, Fernando Osa donostiarrarekin batera, iragan abuztuko azken asteburuan. Hirurek Ultra Trail Mont Blanc (Chamonix) proban parte hartu zuten 2.300 lehiakiderekin batera, 9.500 metroko desnibela zuen ibilbidean.

44 orduetan amaitu zuen proba Bengoetxeak. 46 orduko muga pasa zuenez, Osak 98. kilometroan utzi behar izan zuen saioa. Eta gutxigatik, oso gutxigatik, kanpoan geratu zen baita Moises Andres. 150 kilometro eginak zituen jada, minutu gutxi batzuegatik bakarrik ordea kanpoan geratu zen. Haserrea eragin dio honek Santueneko bizilagunari, baina ez du desanimatu. Hurrengo edizioan parte hartzeko asmoa du Moisesek. Abendutik urtarrilera izango da izen ematea eta apuntatzekotan da usurbildarra. Puntuak bildu behar dira horretarako, 7 behintzat bai, plazen zozketan parte hartu ahal izateko. Moisesek eta lagunek puntuak "100 Milak" edo



Moises Andres eta Iñaki Bengoetxea usurbildarrak, Fernando Osa donostiarrarekin batera.

Huescako Sierra de Guarako probetan parte hartuta lortu dituzte. Eta gogotik prestatuta. Aste Santutan Usurbildik Arantzazura anto-

latu ohi den mendi martxan adibidez, Aizkorrri aldera joan bakarrik ez. Joan eta etorri ere egin ohi dute. Ez dute meritua makala.

Laburrean

Zubietako Lanbide Eskolaren oharra

2012an Zubietako Lanbide Eskolan ikasketak amaitu zituztenak tituluak jasotzeko moduan daude. "Erdi eta goi mailako tituluak iritsi dira eta jasotzeko prest daude. Jasotzeko ordutegia: 9:00etatik 14:00tara".

Ke eta usain txarrekin amaitzeko, bilera berri bat

Usurbilgo Udala, Ucin eta Eusko Jaurlaritzak mahai baten bueltan biltzekoak dira ostegun honetan, urriak 10. Atxegalde ondoan kokatua dagoen lantegiko ikuskaritza protokoloa zer modutan egin, adostu asmo dute hiru aldeek.

Usurbilgo Fiare taldearen proiektzioa

"Con tu dinero" dokumentala proiektatuko dute urriaren 18an, 22:00etatik aurrera Sutegin. Finantza munduaren errealitatea ikuspuntu kritiko batetik, horixe dokumentalak islatzen duena. Ondoren, eztabaidatzeko aukera egongo da.

noqua

Kultur Elkartea
Bordaberrri, 3 - Eguzkitzalde. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkarte@noqua.com /// www.noqua.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua.
Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda.
Idazkaria: Aizpea Aizpurua.
Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noqua.com.
Diseinu berria: Erroitiz S. L.

Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noqua.com: Imanol Ubeda, Aritz Lasarte, Aizpea Aizpurua.
Banaketa: Olatz Rezola, Arantxa Zulaika.
Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbiete, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.
Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA**
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Luken Arkarazo

Erabilpen kontua

Ez zabilta oker, lehen aldiz idazten dut hemen, eta egia esan, gai askearen kontua gauza berria da niretzat. Orain arte aldizkari honetan zein beste zenbait lekuetan, gai konkretu bati buruz hitz egiteko eskatu didate. Gaurkoan ordea, espazio pribilegiatu honetan, burura etortzen zaidan edozer esan dezaket. Ba begira, bi aste damazkit pentsatzen (izatez aurreko asterako idatzi behar nuen) eta ez dakit zer arraio idatzi.

Azkenean hemen nago beti bezala, astelehen arratsa (idatzia entregatzeko azken eguna) azken orduan korrika eta presaka.

Euskal gatazkaren azken pasarte ilunez hitz egitea bururatu zitzaidan hasiera batean, baina ziurrenik "Herri-raren auzia" edonon irakurtzeaz nekatuak egongo zaretenez, gazte usurbildar izatetik dextente eragiten nauen beste gai batetaz mintzatuko natzaizue: lokalen fenomenoak. Izan ere ni neu partaide naizen lagun arteak, bost urte lokal batean egon ondoren, urriaren amaieran berau uztea erabaki dugu. Honako hau une egokia irutzen zait,

gure herriko gazteen artean hain zabaldurik dauden gune pribatu hauetaz hitz egiteko. Euren alde onak eta txarretaz mintzatzeko. Nire helburua? Lokala hartzeko bidean dauden gazteak informatzea, besterik ez.

Ezin ukatu lokala gune goxoa da, beroa, filme bat ikusiz edota kartertan jokatzu neguko arrats hotzetaz ihes egiteko leku paregabea. Bestetik gune pribatua da, bertan normalean hileroko alokairua ordaintzen dutenak soilik ibiltzen direlarik. Ezaguri honek partaideen arteko harremanen garapena eta hauen sendotzea ekartzen du. Pribatuan gainera kanpoan egitera ausartzen ez zaren gauzak egitera ausartzen zara. Gertuko konfidantzapean, dena da errazagoa. Azken hau da agian lokalaren ezaugarri erakargarrienetarikoak. Horregatik hartzen dira lokalak 15/16 urterekin eta ez 20ekin. Nerabezaroan, beldur eta konplexu ugari edukitoki ohi diren aro horretan, lokalek nolabaiteko babesa eskaintzen dute. Lehen muxu eta sexu harremanak, sentimenduei buruzko aitortpenak, drogekin

lehen esperientziak... modu errazagoan garatzen dira bertan, inor begira edo entzuten egongo ez dela dakizunean. Nik neuk duela bost urte lokalaz pentsatzean orain arte aipaturiko ezaugarriak soilik ikusten nituen. Nire ikuspuntu ordea aldatu egin da, eta lokalen zantzu positiboaren artean negatiboak zirenak ere topatu ditut. Lehenik eta behin lokala gastu ekonomiko bat da, hileroko 20 euro inguru ordaintzen dira orokorrean, nerabeek sortzen ditugun beste zenbait gastuei gehitu ezker, ez da zifra xumea.

Lokalak bertako kide direnen arteko harremanak indartzen dituela egia da, baina aldi berean kide hauek beste gazteekin eta orokorrean herriarekin dituzten harremanak ahultzeratza ditzake. Ohitura eta erosotasunagatik batetik, eta hileroko ordaindu behar duzun kantitatearen errentagarri egite aldera bestetik, asko dira lokaletik irten barik joango zaizkizun egunak. Nire ustez gero eta jende gehiago ezagutzea eta eurekin harreman anitzak garatzea ezinbestekoa da gaz-

teon nortasuna garatzerako orduan. Bide horretan lokala ez da elementu lagungarri bat, hori argi dago.

Gazteek lokaletan sartuta egoteak herriari bizipoza eta indarra xurgatzen dizkiola ere esango nuke. Gazteri batu, antolatuta eta kritikoa bat da herri baten altxorrik preziatuena, bere etorkizuna. Lokalak ordea pasibotasunera bultzatzen du gaztea, sofako erosotasunera. Eredu honetan erraza da beste alde batera begiratzea, gazte bezala pairatzen ditugun arazo kolektiboak muzin eginez.

Hau noski, argi dago ez dela lokala duten gazte guztien kasua. Asko dira lokala eduki arren herrian parte hartzen duten gazteak, eta aldearantziz, lokalik eduki ez eta guztiaz paso egiten dutenak. Hau guztiarekin esan nahi dudana? Lokalaren izaera ematen diozuen erabilpenak definitzen duela. Lokala edukitzea zerbait txarra da? Nire ustez ez. Egun osoa lokalean sartuta egotea ona da? Ezta. Lokalarekin beste gauza askorekin bezala gertatzen da: guztia erabilpen kontua da.

Luken Arkarazo | Aritz Gorriti | Idoia Torregarai | Luis Aranalde | Luken Arkarazo | Joxe Piñas | Maialen Unanue | Imanol Ubeda | Nerea Zinkunegi

LOMCEren aurkako manifestaziora joateko autobusa antolatu da

Larunbat arratsaldeko 17:30etarako Bilbon, LOMCEren aurka deitua dagoen manifestaziora joateko autobusa antolatu du, "Euskal Herrian gure hezkuntza eraiki" LOMCE-ri ez! lemapean deitu den aipatu mobilizazioarekin bat egin duen Usurbilgo Hezkuntza Mahaiak. Autobuserako izena, Bordatxo tabernan, Udarregi Ikastolan eta Aginaga

eta Zubietako Herri Ikastetxeetan eman daiteke.

Hezkuntza eta gizarte arloko eragileek deitu dute Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoaren, LOMCE legea bezala ere ezaguna, aurkako manifestazioa. Ikastolen Elkar-atea, Sortzen, EHIGE, Bihe, Sarean, Ikasle Abertzaleak, Nize, ELA, LAB, STEE-ELAS, UEU, Hik Hasi, CCOO eta Kon-

tsailuak, besteak beste.

Urriaren 12an egingo da Bilbon manifestazioa. Deialdia luzatu dutenek, gainera, alderdi politikoei, Eusko Jaurlaritzari eta Nafarroako Gobernuari erreforma ez ezartzeko eskatu diete. "Erreforma zentralizatzailea, doktrinatzatzailea, uniformizatzailea, banatzailea, atzerakoia eta elitista" dela argudiatuz.

Esperientzia Eskola martxan

Urriaren 8rako zegoen iragarria ikasturte hasierako aurkezpena. Aurrerantzean, asteartero izango dira saioak, 16:00-18:00 artean Artzabalen. 50 urtetik gorako herri-tarrei zuzendua dago doako hezkuntza eta aisialdiko eskaintza hau. Izena emateko deitu Gizarte Zerbitzuetako 943 377 110 telefono zenbakira edo idatzi, gizarte-zerbitzuak@usurbil.net helbidera.

URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

WEL ZADENA

Talde murriztuak eta pertsonalizatuak

- Lehen eta Bigarren hezkuntza
- Batxilergoa
- Selektibitatea
- Langabe heziketa
- Ikasketak teknikoak
- Hizkuntzak

6 2 9 9 4 4 6 9 0

Galtzaragaña 1, beheka USURBIL

Otar-Goxo
Elkideak

Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

TAXI
24 h
USURBIL

677 37 34 66] Joxe
943 36 21 78] Etxabe

Sariko lanak, bi hilabetetan bukatu nahi

Saria lehengoratzeko lanak abian dira udaz gerotzik. Aldundiak bi hilabeteko epean amaitu asmo ditu, Udalak, usurbil.net ataritik adierazi duenez. Azken asteotan eman diren aurre-pausoen berri eman dute; "udako eguraldi lehorra ongi aprobetxatzen ari da Saria ingurua berreskuratzeko lanean ari den enpresa, eta Foru Aldundiaren gidaritzapean gauzatzen ari den obra martxa onean doa. Lehenengo lana, zeuden makalak kentzea izan da. Gero, makinak sartu dira lurraren maila jaisteko, ura sartu ahal izateko, eta padura ekosistema berreskuratzeko. Gunearen itxura goitiki behera aldatu egin da, lezkadia ere kendu baitute makinek. Hala ere, lanak amaitzen direnean, lezkadia itzuliko da. Kendutako lurra aprobetxatzen ari dira errepidetikeremua babestuko duen lur meta bat osat-



Udazkeneko euriteak hasi baino lehen bukatu nahi dute.

tzeko. Bi hilabeteko epean bukatzeko asmoa azaldu du Aldundiak, udazkeneko euriteak hasi baino lehen ahal bada".

Energia plana, diruz lagundua

610.850 euro bideratu asmo ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak, iraunkortasunaren aldeko ekimenetara. Aurkeztutako 32 proiektu lagundu-

ko ditu diruz. Horien artean, Usurbilgo Udalak aurrera eraman nahi duen Usurbilgo Energia Jasangarri-rako Ekintza Plana.

5.324 tona CO2 gutxiago isurtzea ahalbidetzea aurreikusten da egitasmo honekin. 2020. urterako %20 murriztu nahi da aipatu isurpena. Horretarako hainbat ekintza proposatzen dira, Udalean, etxebizitzetan eta zerbitzuetan eragiteko.

14.760 euro, euskara ikasten laguntzeko

Euskara ikastea sustatzeko, diru-laguntzak eman ohi ditu urtero Usurbilgo Udalak. Aurten 39 ikasle aurkeztu ziren deialdira. Eskae-rok tramitazio prozesua pasa ostean, irailaren 13ko Tokiko Gobernu Batzordean, 14.760 euro banatzea onartu zen.

Euskarako udal diru-laguntza deialdiko oinarrietan berrikuntzak txertatu dituzte. Laguntzok banatzerakoan, 2013 honetan, ikasleen lan egoera eta ikasketa mailak hartu dira kontuan. Ikasketa mailaren arabera, matrikula kostuaren %60-%80 artean itzuli zaie ikasleei. Langabetuen kasuan, %100 arteko laguntza ere jaso zezaketen, hor ere ikasketa mailaren arabera. Eta ikasle guztiei, laguntza jaso ahal izateko, Usurbilen erroldatua egon eta klaseen %80ko asistentzia izatea eskatzen zitzairen.

Euskara ikasteko laguntzak aspaldidanik banatzen ditu Usurbilgo Udalak. Inguruetako beste hainbat udalerrik baino laguntza gehiago. Aurrerantzean ere, apustu hau egitearen aldeko asmoa du udal gobernuak: "Garrantzitsua da Usurbil bezalako herri euskaldun batean herritarrek euskara ikasteko erraztasunak eta baliabideak eskura izatea".

Beste 1.000 euro, aisialdirako

Aurreko ikasturtean aisialdiko begirale eta zuzendari ikastaroa egin zutenentzako ere diru-laguntzak banatu ditu Usurbilgo Udalak. 1.000 euro guztira, Usurbilen erroldatuak egon, ikastaroa euskaraz egin eta eskabidea aurkeztu zuten 7 ikasleren artean.

Bi auzokonpostagune berri martxan, laster

Bat udaletxean kokatuko da, bestea Olarriondoko udal baratzaren alboan, eta biak hila-bete barru martxan egongo direla aurreikusten da. Udaletxe ondoko gunean organikoa konpostatzeko aukera izango dute, Irazu, Etxebes-te, Nagusia eta Irutasun kaleetako eta Gaztañaga azpiko etxebizitzetako bizilagunek. Eurei zuzenduta, formazio eta informazioa jasotzeko saioak antolatu dituzte datorren astean. Gogoan izan organikoa konpostatzen dutenei %40ko hobaria aplikatzen zaiela. Informazio gehi-ago jasotzeko: 650 374 936 / usurbilzerozabor@gmail.com Bilera hauek deitu dira:



Udaletxean eta Olarriondoko udal baratzaren jarriko dira konpostaguneak.

- Kaleberri: urriak 10 osteguna, 19:00etan Potxoenean.
- Olarriondo: urriak 14 astelehena, 19:00etan Olarriondoko udal baratzetako etxolan.
- Urriaren 27rako, Atez Atekoik Zero Zaborrera III. Jardunaldien baitan, Konpost Eguna antolatu dute Usurbilen. Aurrerago eskainiko dugu informazio gehiago.

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

JE JON ELORZA
IGELTSERITZA
OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

2014ko ordenantza fiskalak, Patxi Seguiolaren estradizioa eta Herriraren aurkako operazioa aztertu ziren udalbatzan

Ez ohiko udalbatza plenoa deituta zegoen aurreko astean. Bi puntu zeuden aztergaien artean: “2014rako Ordenantza Fiskalak hasieraz onartzea” eta “Patxi Seguiola Maioz aginagarraren estradizioa” izeneko mozioa, EH Bilduk aurkeztua.

Lehen puntuari dagokionez, irizpide nagusia KPlaren igoera aplikatzea izan da zerga, tasa eta prezio berrietan. Salbuespen edo bereiztu beharreko puntu batzuk egon badira eta horien inguruko xehetasunak eman zituen aditzera Alaitz Aizpuruak, Bilduko zinegotziak. Bozketa garaian, Bildu eta Aralarreko zinegotziek aldeko botoa eman zuten eta abstentzioari heldu EAJ-PNVk. PSE eta Hamaikabat-eko udal zinegotziak aurka agertu ziren.

PATXI SEGUIOLAREN ESTRADIZIOA

Patxi Seguiolaren inguruko mozioan, aginagarraren egotzen jarraipen estua egitea jasotzen zen. Bere estradizioa salatu eta Estatu espainolari eta frantsesari garai berriak kontuan har ditzatela eskatzen zaie. Frantsesari bereziki, “Madrileko politikarekiko daraman lerrotatze sistematikoa hautsi” dezala eskatzen dio EH Bilduren mozioak. Bozketan, Bildu eta Aralarreko zinegotzien aldeko botoekin onar-



Talde guztietako ordezkariak izan ziren ez ohiko bi plenoetan.

“Salbuespenak salbuespen, zerga, tasa eta prezio berrietan KPlaren igoera aplikatu da”

tu zen mozioa. Hamaikabat, PSE eta EAJ-PNV-k abstentzioari heldu zioten.

Ez ohiko pleno horren amaieran, ez ohiko eta premiazko beste udalbatza pleno bat deitu zen. Bilkuraren premiazkotasuna berretsi zuten lehenbizi Bildu eta Aralarreko udal ordezkariak (gainontzeko alderdiek abstentziora jo zuten). Ondoren, Herriraren aurka burutu den operazioari buruzko mozioa aztertu zuten. “Herri honen gehiengoari eta konponbide prozesuari egiten zaion eraso gisa” jotzen da Herriraren aurkako operazioa. Atxilotutakoen behalako askatasuna eskatzen da eta “kriminalizatzea helbu-

ru izan dezaketen ekimenak bertan behera uztea”. Larunbaterako deitua izan zen manifestazio nazionalarekin bat egiten zen eta alderdi eta eragile denei “prozesuari etengabeko ekarpena egin eta jarrera eraikitzailearen bitartez laguntzea” eskatzen zitzaion. Herriraren inguruko mozioak Bildu eta Aralarren aldeko bozkak jaso zituen, eta Hamaikabat, PSE eta EAJ-PNVren abstentzioa.

EAJ-REN PROPOSAMENA

Andoni Atxega EAJ-PNVko zinegotziak bere abstentzioa azaldu nahi izan zuen: EH Bildu eta EAJ-PNVko ardura-dunak batu dira eta idatzi komun bat adostu dutela esan zuen, “nik nahiago izango nuke hura aurkeztu izan bazen. Presazko kontua izan denez, adierazi didazue ez dela hona ekartzea posible izan eta horregatik nire botoa absten-

tzioa izango da”, adierazi zuen Atxegak.

Alkateak arautegi kontua dela argudiatu zion EAJko zinegotziari. “Arauk ez du onartzen plenoa egiten den egunean beste mozioen bat edo horren ordezkoa aurkezte. Baina guk ez dugu inolako arazorik hurrengo pleno batean mozio hori aurkezteko. Horrelako ekimenak onak dira gainera, baina une honetan mozio hau mantentzen dugu, manifestazioa larunbatean da eta egoerak eskatzen du horrelako erantzun bat ematea eta hau da gure proposamena”. Bozketan, alde agertu ziren Bildu eta Aralar eta abstentziora jo zuten oposizioako gainontzeko alderdiek.

Bi lorazain laguntzaile kontratatzeko lan deialdia

Hautaketa prozesuan parte hartzeko, urriaren 10era arte eman daiteke izena lanbide.net web orrialdean. Aldundiaren diru-laguntza jaso du Udalak lan deialdiok egiterakoan. Bost hilabetez eta aldi baterako lanean aritzeko eskaintzak dira hauek. Parte hartzeko, Lanbiden langabetu gisa izena emanda eta eskualdeko udalerriren batean erroldatua egon behar da. Gainera, 6 hilabeteko esperientzia eskatzen dira lorazain laguntzaile lanbidean, eta euskaraz jakitea.

ANTXETA
taberna-jatetxea

eguneko menuak
ogitartekoak
plater konbinatuak

Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

Andoni Errazkin

Xukin
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

USURBIL
© 663 08 76 71 • 943 24 34 65

LATAILLADE

ITURGINTZA

Gas, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua

Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021

Lan uztea udaletxean



Herriraren aurkako polizia operazio bidegabekia salatuz eta atxilotuei elkartasuna adierazteko, ordu erdiko lan uztea deitu zuen iragan urriaren 4ko eguerdian, euskal gehiengo sindikalak. Hainbat mobilizazio burutu ziren Euskal Herriko udaletxe atarrietan. Usurbilen baita. Joxe Martin Sagardia plazan bildu ziren hainbat langile, gazte eta herritar, “euskal presoaren eskubideen eta konponbidearen alde!” lemapean. Haietako batek baino gehiagok esku artean zeramatzan, “Herrira aurrera” edo “Denok gara Herrira” zioten kartelak ere. Mobilizazio amaieran poza agertu zen lau egun lehenago atxiloturiko 18 lagunak etxean zirelako, baina kezka ere bai, auzia ez delako hemen amaitzen. 18 lagunok inputatuta baitaude, eta oinarrizko hainbat eskubide murriztuak dituzte.

Lan uztea Michelinen



Erakunde atarrietan bakarrik ez, lantegietan ere mobilizazioak burutu ziren. Tartean, Michelinen eta Luzuriagan. ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, Hiru, EHNE, CGT eta CNT-k eginiko deialdiarekin bat eginez, eguerdiko lan txanda aldaketan, lantegi atarian bildu ziren hainbat langile, “euskal presoaren eskubideen eta konponbidearen alde!” lemapean.

“Tantaz tanta”, murala



Egunez egun, Herriraren aldeko mobilizazioak gehitzen joan dira. Astebururako Herriraren aldeko bi ekimen nagusi iragarri ziren; milaka herritar bildu eta kultur zein kirol munduko aurpegi ezagunek gidatu zuten Bilboko manifestazio nazionala batetik, “Tantaz tanta euskal preso eta iheslarien eskubideen alde” lemapean egin zena. Autobusez hainbat usurbildar gerturatu zen Bilbora. Eta herrian, ostiraletik manifestazio aurreko orduetara, Bizkaiko hiriburuko aldarriak jasotzen zuen “Tantaz Tanta gunea” antolatuta zen. Herri ekimen desberdinekin; bertso musikatuen saioaz gozatu ahal izan zen Sutegi atarian, urriaren 4ko iluntzean. Euskal presoak euskal herriratzeko irudia bere barne hartzen zuen tanta urdin erraldoi bat marraztu zuen herritar talde batek biharamunean. Elizako horman dago ikusgai.

Elkartasuna kirol alorretik



Azken egunotako mobilizazioekin bat egin dute hainbat herritar eta eragileek. Eta horietako elkartasun tanta batzuk, Kantu Taldeetik edota Haranetik heldu dira. Usurbil FT-ko taldeetako batek ere Herrirak burutu ohi duen lanari, presoaren eskubideen aldeko jardunari babesa adierazi nahi izan zioten iragan asteburuan. Manifestazioko aldarriarekin bat eginez.

EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

JOSETXO IKATZETA
Iturgintza
TEL: 943 36 20 26
687 95 12 25

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Errazkin S.L.
igeltseritza orokorra
943 24 01 76 eta
649 435 470
errazkinsl@euskalnet.net
Oztaran auzoa 33, URNIETA

Nagore Unanue, Usurbil FT-

Hilabete baino ez da kargua onartu zuela, eta kokatzen dabil. Usurbil FT-k lehendakari berria du; klub barruan denetariko ardurak izan eta ibilbide luze askoa jorratu duen Nagore Unanue usurbildarra. Eta bai, oraindik halako kontuek albiste izaten jarraitzen dutelako, bera da Usurbil FT-k historian izan duen lehen emakumezko presidentea. Atxegaldekoak gogotsu eta pozik ekin dio aro berri honi. Bere lehen hitzak, eskertzakoa dira, presidente karguan jarri duen zuzendaritza taldearentzat. Eta modu berezian, aurreko lehendakari Txema Iturrioz eta zuzendartzako beste kide bat Juan Karlos Galanentzat, orain arte egin duten lan bikainagatik. Gainerakoaz, lerrootan hitz egin du Unanuek NOAUA!rentzat eskaini duen lehen elkarrizketan.

Usurbil FT-k izango duen emakumezko lehen lehendakaria zaitugu. Hau albistea da zuretzat, nola bizi duzu gai hau?

Nagore Unanue. Aldaketa zertorela banekien, lehendakari berria behar genuen, baina ez nuen uste neure izena aterakozenik. Zuzendaritzan zazpi urte daramatzadan arren, lasai eta pozik nago, klubak hartutako erabaki bat izan delako eta neure alde bozka eman dutelako. Baina ardura berriarekin kezkatuta, ia egoki bete ahal izango dudana. Lehen urte hau proba moduan hartuko dut. Ia nola doan dena, ondo joatea espero dut.

Eta bat itxi eta beste bat irekiko da klubean. Aro berri honek zer aldaketa dakartza? Ez dakit berrikuntzak ekarriko dituen. Presidentea, taldeko buru bat da, ikusten dena. Bai-



“Heziketa aldetik oinarri on bat landu nahi genuke, ez bakarrik kirol arloan baita hezkuntzan ere”

Zuzendaritza talde berria osatu da aurtan.

na gero, jo eta su lanean ari den lan talde bat dago. Orain arte arlo soziala lantzen ari nintzen. Horretan jarraituko dudalakoan nago eta presidente izate horrekin bat egin deza keela. Ondorioz, alde horretatik aldaketa batzuk sartu ditza ket Usurbil FT-n; entrenatzaileen formazioa bultzatzea adibidez.

Talde izaera izaten jarraituko du Usurbil FT-k, beti nabarmendu duzue.

Bai. Zazpi urteotan beti izan naiz talde honetako parte eta neure ekarpena izan dena izan da, batzuetan gutxiago besteetan gehiago. Talde baten kide beti. Horrek pozten nau, lehendakari beraiek hautatu izana. Zuzendaritzara kide berririk badator, ongi etorrria izango da.

Ikasturte berri honetan ere Usurbil eta usurbildarrak futbolera gerturatzen jarraitu nahiko duzue?

Usurbildarrak futbolera gerturatzea nahi genuke. Azkene-

an, pena da halako instalakuntzak izan eta jende asko ez igotzea. Guk zer egiten dugu? Herritarrak hona ez badator, gu joaten gara Kaxkora. Saiatzen gara denboraldiko aurkezpena Zumetaren mural parean egiten, Usurbil Cup edo Aste Santuetako txokoak antolatzen... Eta aurtan berrikuntzak sartu nahi ditugu, baina ez da hain erraza, kulturalki eta hainbeste gauza egiten diren herri batean, beste ekimen berri bat txertatu eta tarte bat bilatzea.

Denboraldi hau zertan nabarmendu liteke?

Heziketa aldetik oinarri on bat landu nahi genuke, ez bakarrik kirol arloan baita hezkuntzan ere. Animatu egunero jardunean dauden taldeak ia denok denboraldi ona egiten dugun.

Lehendakaritza postu batek zer suposatzen du, ardurei dagokienean?

Duela hilabeteko kontua da hau guztia, eta oraindik kokatzen nabil. Beste klubetik harremanetaz arduratu, talde-

ekin egon, gai guztien inguruan informatu... Ardura berriok neure lan propioarekin uztartzeko oraintxe neure bidea egiten ari naiz.

Zuzendaritzan eman diren aldaketak

Zuzendaritza eraberrituta ekin dio Usurbil FT-k 2013-2014 denboraldi berriari. Urte luzeetan aritu diren kide batzuk lekukoa pasa diete kide berriei. Eta badira baita, jarraituko dutenak ere. Utzi dutenei esker ona adierazi nahi diete zuzendaritza taldetik, eta klubetik ongi etorrria ematen diete sartu berri direnei:

■ Utzi dutenak: Txema Iturrioz lehendakari ohia eta Juan Karlos Galan.

■ Sartu direnak: Pepe Salazar, Iñaki Arruti eta Xabi Pagola.

■ Jarraitzen dutenak: Nagore Unanue, Ainhoa Aizpurua, Ainhoa Azkue, Joseba Portularrume, Jose Manuel Sanchez "Lolo", Iñigo Pagola, Iñigo Etxaniz eta Beñat Larrañaga.

ko lehendakari berria

Ibilbide luzea egin duzu Usurbil FT-n. Txikitatik zabil-tza futbolean?

“Multikirolak” egiten genuenean, ikastolan nenbela hasi nintzen. Txikitatik futbolean jokatzea oso gustuko nuen. Entrenatzaile oso ona genuen, Josu Aranberri, urte pila egin genituen berarekin areto futbolean. Nahiko ondo moldatzen ginen, partidak irabazten eta guzti. 14 urterekin Haranen neska falta zegoela eta batzuk animatu ginen eta ordutik hemen nago. Poz pozik, duela bi urte amaitu nuen futbolari gisa neure kirol ibilbidea.

Askok jokalaria izateari uzten dioten unean eteten du baita klubarekin ere. Zuk ordea Usurbil FT-n jarraitu duzu. Zerk lotzen zaitu klubera?

Pertsonetikiko lotura izan dut. Hemendik kanpo neska koadri-la bat izateaz gain, beste lagun talde bat egin genuen hemen. Klubarekin lotura bat izan dut. Eta gero tabernarena dago. Azkenean, maitatu egiten duzu proiektua, eta azkenean zurea bezala sentitzen duzu. Askotan diot hau neuretzat bihotzez eginiko zerbait da, ez dela ez lana ez ezer. Emozionalki hemen ondo egoteak asko suposatzen dit.

Usurbil FT barruan denetari-ko ardurak izan dituzu. Eta horrek ere ezagutza handia emango zizun, lagungarria ibilbide berrirako?

Pixka bat denetarik egin dut. Oraingo zuzendaritzatik beterranoena naiz. Duela zazpi urte hartu genuen kluba, ia zerotik hasi ginen. Talde gutxiarekin hasi ginen, dena berria zen, Harane ere berria zen. Haste hori izan zen. Gogora ekarri nahi dut batez ere lehendakari izan den Txema Iturrioz, bera-



Nagore Unanue:
“Bere garaian nesken futbol taldea izan zen kluba salbatu zuena”

Baloia eskuartean du Nagore Unanuek. Zuzendaritzakoekin batera ageri da.

rekin egin ditudalako zazpi urteok. Oso ondo joan gara.

Usurbil FT-ren krisialdi garaia zen hura?

Ardura hartu genuenean ez genekien nondik jo. Jasotako laguntzarekin lehen urtea salbatu genuen. Egungo zuzendaritza taldean dauden kideak sartzen hasi ziren. Bilgunea taldeka banatzen hasi ginen; orain dagoen bezala, kirol arloa, arlo soziala, taberna... Nik neure burua ez nuen kirol arloan ikusten. Bai talde sozialean eta tabernan. Haranera etortzen zen jendeari zerbitzu bat eskaini behar zitzaion. Bost urtetan tabernan aritu naiz aurreko presidentearekin. Egia esan horretan aritu naiz gustura, eta ahalik eta zerbitzu onena eman. Eta gero bai, gustuko dut saltsa. Ez bakarrik futbola, Kaxkotik kanpo goialde honetan gaudenez, herrira gerturatzea futbola, nortzuk garen, haurrekin lana egin, Usurbil Cup, txokoak...

Klubetik ere zuk zerbait jaso duzun seinale?

Hemen pozik bizi izan naiz

beti eta pozik eta oso gustura jarraitzen dut. Hala izan ez balitz, ez nintzen hemen egongo. Kontzienteago nintzen klubean nengoela jada ni nintzenen nesken futbol taldeko helduenetakoa. Eta egia da, futbol talde honetako kideekin dudan harremana oso ona da. Askotan eman dit taldeak, oso ondo pasatzen genuen, oso oroitzapen onak ditut. Nesken taldea krisian dago eta egoera bideratzen ari gara. Baina gogoratu nahi nuke, bere garaian nesken talde hau izan zela kluba salbatu zuena. Talde bakarra izan zen bere garaian.

Zuk jasotakoa orain belau-naldi berriengana zabaldu nahiko duzu? Zer da transmititu nahi diezuna?

Elkarbizitza batez ere. Azkenean hau ere bizitzeko era bat da. Zure errealitatean sartu litekeen bizitzeko modu bat da, nik hala hartu dut. Bestalde, ez bakarrik kirolak, heziketa bultzatzeak neuretzako balio izan duen moduan, besteentzako ere balioko duela uste dut. Eta honez gain, azkenean familia bat garela. Etortzen zara lehiatzera, ahalik eta gauza gehienak hobetzen joaten saia-

tzera. Gero hiru entrenamendu saioetan eta asteburuetan hemen zaude. Elkar bizi zara, lagun artea egiten duzu. Giro oso ona egoten da. Klubeko afarian ikusten da, zer familia giro dagoen.

“Entrenatzaile bikainak ditugu”

Klub honetan oraintxe zer indartuko zenuke? Lehenastunetik baduzu?

Nagore Unanue. Formazioari emango nioke lehenastuna; DYA elkartearekin lehen sorospenen inguruko ikastaroa antolatzea esaterako. Hemen batzuk badira ikastaro hori egin dutenak, baina beste batzuk ez. Gainerakoan nahiko jantziak gaude. Kirol arloan, entrenatzaile bikainak ditugu. Hortik ondo goaz. Beste erronka bat; ia nesken taldea indartzen dugun. Saiatzen ari gara. Urte zailak izan dira. Zuzendaritzak lan handia egin du. Entrenatzaile tituludun bat bilatu da, bigarren entrenatzaile bat ere bai. Erronka gehiago; arlo soziala indartzea, ekintza gehiago sustatzea... Baina horretarako ere denbora gehiago behar da. Halere, egiten saiatuko gara.

Aginagako jaiak, azken txanpan

Errekuaratu al gara? Aldizkari hau jasotzerako aurreko asteburuan Aginagara joandakoen artean, "ajea" baldin bada oraindik, presta zaitetzete. Gutxi geratzen baita indarrak hartu eta San Praixkuen errematerako. Haurren Egunarekin, eta goizaldera arte luzatuko diren parranda gauekin bueltatuko da jai giroa lau eguneko atsedendiaren ostean, Aginagara.

Urriaren 11 honetan izango da. Ostiralean, herri ikastetxe-ko haur eta gaztetxoek ez dute klaserik izango. Eguna jolasean pasako dute eta. Iluntzerako hiru hitzordu; Dj Kankar afalurretik, bertso-afaria gero Eliza zaharrean, eta Itzartu taldekoekin, erromeria goizaldera arte.



Larunbatean, estropadak amaitu berrieta hasi zen Zumartxan txarangako kalejira.

Parranda giroa baita, San Praixkuetako azken gauean, larunbatean, Abiba DJ eta Dj Larrarekin. Aurretik, musa eta

Gorritiren animaliak arratsaldean.

Igandean jaietako ekitaldirik ez, errekuaratzeko.

Ostiral honetan, Umeen Eguna Aginagan

Urriak 11, ostirala

10:00 Umeen jolasak.

13:00 Haurrentzako bazkari goxogoxoa indarberritzeko.

17:00 Puzgarriak.

Ondoren, primerako txokolatada eta buruhandi bizi-bizikiak. Hasi korrika!!!

19:00 Dj Kankar ume eta ez hain umeak dantzan jartzeko.

21:00 Bertso afaria Eliza Zaharrean, barre pixka bat egiteko aukera giro ederrean. Bertsolariak: Manex Mujika, Haritz Casabal eta Arkaitz Oizartabal "Xamoa".

Ondoren, dantzaldia Itzartu taldearekin Eliza Zaharrean.

Urriak 12, larunbata

16:00 XXXIII. Mus Txapelketa herrikoia.

18:30 Gorritiren animaliak, ea aurtengoan ere giro polita sortzen dugun.

Gauerdian, Abiba diskofesta.

Ondoren, Dj Larra Eliza Zaharrean. Aukera bikaina gau guztia dantzan igarotzeko!!!

Antolatzailea: Aginagako Jai Batzordea.

Bandera, Hondarribiara

Joan denari buruz, ostegun eta larunbat gauean jendetza bildu zela esan beharra dago. Zuhaitz Gurrutxagaren bakarriketa saioak ludoteka bete zuen. Eta jendetza bildu zen baita, larunbateko herri afarian eta baita afalostean. Aurretik, jendea eta zaletuak Ori a ertzean bildu ziren, trainerilla txapelketa ikusteko. Aginagarrak bandera irabaztear izan dira aurtun, baina Hondarribikoak aurreratu zaizkie. Kontxako Banderarekin batera, Aginagako ere Txingudi aldera joan da. Aipatu moduan aginagarrak bigarren eta atzetik hurrenez hurren; Orio B, Orio A, Kastro, Hondarribi B eta Zarautz.

IPARRALDETIK BISITAN

Eta bandera Hondarribia alde- ra bezala, Iparraldera itzuli dira asteburu pasa Aginagara



Lehen aldiz, Hondarribiak irabazi du Aginagako Bandera.

